

Intxaurrondo



Izkinatik ospitalera

Baratzategi eta Pedro Axular kaleen arteko izkina irristakorregia da, batez ere euria egiten duenean. Azkenaldian, auzotar ugari erori dira bertan.

M Gladys Villalbai in dezente hartu izan dute Pedro Axular eta Baratzategi kaleen arteko izkinan oreka galdu eta lurrera erori diren zenbait auzotarrek. Luis Mari Usabiagak, esaterako, orain dela lau urte izkina horretan erorita, besoa

hautsi zuen. Oraindik ere min duela esan digu Usabiagak. Urtebete geroago, Tere Torremochak eskumuturra hautsi zuen teku berean eta igeltsua jarri behar izan zioten. Fer-

nando Velascok ere eskumuturra hautsi zuen bertan, 2003ko abendu bukaeran. Egun eskumuturra bere onera ekartzeko ariketak egin behar ditu oraindik.


Baita jatetxeok ere

Bi kaleen arteko izkinean jate-txe bat dago, eta bertako langileek ere muturreko galantak hartu dituzte ditxosozko tokian. Juani Moreno sukaldariak hanketan kolpea hartu zuen. Paqui Lopez del Pozo zerbitzariak, eskuetan poltsa batzuk zeramatzala, irrist egin zuen. Jatetxeko nagusi Domingo Esphinak hartu zuen min gehien: eskubiko hanka hautsi zuen lantokiaren atarian orain dela bi hilabete eskas, eta makuluekin dabil egun.

Auzotarrek ez dute salaketarik jarri, baina zorua horren labainkor izan ez dadin, neurriren bat har dezaten nahi dute. Bien bitartean, leku horretatik pasatu behar baduzu eta zorua bustita badago, tentuz

Tenis eta padel txapelketa aurrera

Abendutik martxan dugu Internacional Kirol Elkarrekin federatu gabeko tenis eta padelzaleentzat antolatutako txapelketa. Tenis txapelketan 36 lagun parte hartzen ari dira, eta padel txapelketan, berriaz, 30 bikote. Parte hartzaile gehienak Intxaurrondokoak eta Donostiako beste auzotakoak diren arren, Pasaia, Oiartzun edo Hondarribiko zenbait tenis



eta padelzale ere auzoko pistetan lehiatzen ari dira. Partidak larunbat goizetan jokatzeko ari dira, eta finalak maiatzaren amaieran izango dira.

Oraindik ere, obren zain

Baratzategi kaleko 1. eta 2. zenbakietako bizilagunek beren etxeak noiz konponduko zain jarraitzen dute. Etxeak egin eta berrehala, bizilagunek auzitara eramane zuten enpresa eralkitzailera. Itoginak zituztelako etxebizitzetan eta hezetasunaren ondorioz, orbanak agertu zirelako horretan. Joan den urtearen amaieran, behin betiko epaiaren berriz izan zuten bizilagunek. Epaiaren arabera, enpresa eralkitzailera 2003ko abendua eta 2004ko otsaila bitartean, konponketa lanak egin behar zituen etxebizitzetan. Lanok, baina, ez dira oraindik hasi. Hori dela eta, bizilagunek berriaz ere epailearengana jo dute, eta erantzunaren zain daude.

